

PLAZANA?

eleak MUGIMENDUA

Gau luzearen beltzean, argitxoa piztu zen.

Argitxoa gizenduz joan zen, harik eta egunsenti bilakatu den arte, noizbait egun argi-bete izateko esperantza duen egunsentia.

Baina ez du guztiz argitu. Eguzkia behean da, han ortzimugan, bere borobiltasunaren erdia soilik ikusgai, zeruan gora egiteko ahulegi oraindik. Horregatik dira lur-azaleko erliebeek sortzen dituzten itzalak luzeegiak; eguzkiak goitik behera ezin, eta alboz soilik jotzen duelako. Argi-printzak, beraien epelaren goxotasuna, ez dira bazter guztietara zabaldu. Gure paisaia, gure herrian, gure hirian, epaitegi eta ziegen itzalak luzeegiak dira, mardulegia itzalpean edo bere mehatxupean bizi direnen zerrenda. Gau hotza egunsentiari gailentzen zaizkion lekuak ez dira gutxi.

48 pertsona auziperaturik, 35 epaiketaren zai, 11 erakunde politiko ilegalizaturik, 20 pertsona torturatuak, 257 urteko espetxe eskaera, 55 urte espetxeraketa prebentiboan, 720.000€ fidantzatan...

Ezin dugu esperoan geratu, egunsenti osagabea egunbete bihurtuko den unearen zain. Guztion zeregina da eguzkiari bultza eginez paisaia argitu eta itzalak laburtzen joatea. Iruditu arren, eguzkia ez baita berez mugitzen.

Itzalaren aldean dagoena ikusezina zaigu askotan ordea. Eta, nola ohartu lehen begiratu batean ikusten ez denaz? Eta, ikusten ez badugu, nola ezagutu? Ezagutu ezean, nola arduratu? Nola antolatu elkartasuna, itzalari espazioak irabazteko?

Sua bidelagun dugula: Su, argi eta babes emaile; su, komunitatearen bilgune; su, ekosistemen purifikadore.

Sua itzal-guneetara hurbilduz argizatuko dugu ezkutuegi dagoena, bidegabekeria guztion agerian utziz. Su txiki eta handien inguruan bilduko gara elkarrekin hausnartzeko, elkartasuna elikatzeko. Eta diren doinurik goxoenak, ipuinik sendagarrienak, dantzarik eroenak sortuko ditugu, izpiritu gaiztoen uxagarri. Suaren epeletan miazkatuko dizkiogu zauriak elkarri, sua lagun borrokatuko gara piztien kontra, eguzkiaren alde.

Bideak antzaldutako gaitu eta, hauspo bihurturik, gure ufadek su bakoitzaren sugar eta txinpartak airean barreiatuko dituzte, su berriak erdituz hiri osoan zehar. Eta, San Juan egunean, sutxo guztiak Su Handiaren berotasunera bilduta, gurari zahar-berriak kantatuko ditugu:

Su-lagun, su-sendagarri
Gaur nahi zaitugu adora
Su-printz argiztatu zazu
Izu-ikararen koba
Su-ama, babes-emaile
Nahi dugu zure altzora
Poltsiko bete desioz
Gatoz zure berora

Kraskitin kraskitin
Erretzeari ekin
Kraskiton krasketon
Garbi zazu sakon

Itzalpeko lur idorra
Sufrimendutan jori
Negar malkoak uholde
Bizi-poza itozori
Amesgaiztoen erreinu
Ameslarien hilobi
Iraganen zerbitzari
Etokizunen hobi

Kraskitin kraskitin
Erretzeari ekin
Kraskiton krasketon
Garbi zazu sakon

Bildu gara zure sute
Sendagarrien egarri
Kiskali oinazea ta
Justizia iratzarri
Aldendu mesedez gaitza
Uzta naroa ekarri
Bitez itzalen errautsak
Egun argien ongarrari:

Orduan, gaitz guztiak uxatuko dituen eta eskubide guztiak birloraraziko dituen elkartasun suteak, argi-uholde bilakatuta, bazter guztiak argizatuko ditu.

Itzalekin amaitu arte!... IKIMILIKLIP!!

En lo oscuro de la larga noche, nació un puntito de luz.

Aquel débil destello fue tomando cuerpo, y hoy se nos muestra orgulloso, transformado en amanecer, un amanecer que aspira a ser pleno día.

Pero, no ha aclarado del todo. El sol está bajo, allí en el horizonte, mostrándonos apenas la mitad de su redondez, incapaz aún de ascender al centro del cielo e imponer definitivamente su luz. Por eso es por lo que los relieves de nuestro paisaje crean sombras demasiado alargadas, porque el sol calienta sólo de costado. En nuestro paisaje, en nuestro pueblo, en nuestra ciudad, las sombras de celdas y juzgados son demasiado alargadas aún, la lista de personas que viven en las sombras o bajo su amenaza demasiado extensa, demasiados los lugares en que aún la fría noche se impone al amanecer.

48 personas procesadas, 35 a espera de juicio, 11 organizaciones ilegalizadas, 20 torturadas, 257 años de petición fiscal, 55 años de prisión preventiva, 720.000€ en fianzas...

No podemos quedarnos de brazos cruzados, admirando en calidad de espectadores el amanecer incompleto, a la espera de que éste se complete por sí mismo. Es labor de todas inmiscuirnos con decisión en el paisaje y empujar al sol, para que la luz gane altura y pierdan así terreno las sombras. Y es que, nosotras sabemos bien que, en nuestro pueblo al menos, el sol no se mueve si nadie le ayuda a ello.

Pero las sombras invisibilizan a quienes viven bajo su territorio. ¿Cómo advertir lo que no se muestra a la primera mirada? Y, de no advertirlo, ¿cómo conocerlo? Sin conocerlo, ¿Por qué preocuparnos? ¿Cómo tejer solidaridad para arrebatar espacio a las sombras?

Con el fuego como compañero de viaje. Fuego iluminador, fuego protector, fuego alrededor del cual nos reunimos en comunidad, fuego purificador.

Acercando la llama a las zonas sombrías, iluminaremos lo que hoy está demasiado oculto, dejando la injusticia a la vista de todas las personas. Reunidos alrededor de fuegos chicos y grandes, reflexionaremos conjuntamente para alimentar la solidaridad. Al calor de la hoguera crearemos las notas más dulces, los cuentos sanadores y las danzas que ahuyentarán los malos espíritus. Con el fuego ahuyentaremos a las fieras, y bajo su protección nos lameremos las heridas unas a otras, y lucharemos contra las sombras.

El propio camino nos transformará, mudaremos de piel para ser viento, y nuestros soplidos esparcirán por aire las brasas y chispas de cada fuego, pariendo nuevas hogueras por toda la ciudad. Y el día de San Juan, reunidos todos los fueguitos al calor del Gran Fuego, entonaremos el viejo conjuro, creador de tiempos nuevos:

Fuego viejo, fuego niño	Gusanos, culebras, perros	Tierra que nunca debió ser	Fuego, hoy invocamos
Fuego purificador	Cucarachas, cuervos, sapos	Dominio de togados	Tu gran poder sanador
Fuego protector y amigo	Tierra de deshechos	Tumba del soñador infiel	¡Arda todo lo malo!
Fuego bueno, hoy reunimos	Desierto de los derechos	Insensible al amanecer	Y así, sanando lo insano
Deseos a tu calor	Podrido de pasado	Que ilumina otros campos	Brote, libre, nueva flor

La solidaridad prenderá, el incendio espantará todo mal, la luz inundará todos los rincones, y de las cenizas florecerán derechos y prácticas disidentes, desobedientes, transformadoras.

¡Hasta acabar con las sombras!... IKIMILIKLIP!